



Ansotegi Nekazal Hotela, Etxebarrin.

Ansotegi,
leku eroso,
atsegin eta
lagunartekoa

Etxean bezala
sentiaraztea da
Nekazal Hotelaren
helburu nagusia • VI

Administrazio
saileko
Ikasleen %100
laneratzea
lortzen da

Lea Artibai
Ikastetxeak
praktikak egiteko
eta lan poltsetan
sartzeko bidearekin
arrakasta du • VII

Hirudi,
diseinua eta
kudeaketa
uztartzen

Aurtengo martxoan
eratu zen enpresa
modura • II

Beharrezko berrikuntza

Sei mahai eratu ditu Azarok, hausnarketa eragiteko • IV-V



Okamika Industrialdeko zenbait enpresen artean eratu dute berrikuntza mahaia; dibertsifikatu beharraz eta kalitateaz jardun dute, besteak beste, lehen bileretan.

“Berrikuntzarako
aukerak non
egon daitezkeen
hausnartu nahi da”

Ainara Basurko Azaro Fundazioko
arduradunari elkarrizketa • V



Editoriala • II

Enpresak sortzen • II

Iritziak • III

Sakonean • IV-V

Enpresak ezagutzen • VI

Lea-Artibai Ikastetxea • VII

Azaro Zerbitzuak • VIII

editoriala

Eskualdea, pertsonak eta berrikuntza

Udako atsedenaldiaren ondoren berriro ere hemen daukagu HAZI gure etxe eta enpresetan. Zortzigarren zenbakia da esku artean duguna, eta 2005eko maiatzean argitaratu zenetik, eskualdeko hainbat enpresa eta gairi buruzko informazioa zabaltzea izan da gure nahia.

Ildo horretan jarraituko dugu ale honetan ere: eskualdean sortu berri den Hirudi enpresa ezagutzeko aukera izango dugu, eta baita ere gure artean ibilbide luzeagoa duen Ansotegi Hotela. 11Barrik eta Akilape S.A.L.-k, berriz, euren espe-

rientzien berri emango digute.

Kooperatiben bidetik atalean kooperatiben muina den— eta gero eta gehiago entzuten den— Enpresaren Gizarte Erantzukizun kontzeptuari buruz ariko gara eskualdeko kooperatibisten eskutik. Enpresek betebeharrak juridikoetatik haratago beren borondatez bereganatzen duten jokabidea da EGE-a; gizartearen garapen sozio-ekonomikoan eraginez pertsona eta erakundeentzako inguru baldintza hobek lortuz.

Enpresaren alde guztien itxaropenak hartzen dituen kontuan EGE-ak: langileak, bezeroak, hornitzaileak, lehiaki-

deak, gizarte erakundeak eta gizartea oro har. Eskualdean ere horren ezaugarri dira hainbat ekintza. *Sakonean* atalean aipatzen diren Lea-Artibaiko berrikuntza mahaia horren adibide dira; hainbat enpresa eta gizabanakok gizarte honen garapenean laguntzeko sortutakoak.

Martxan dauden sei berrikuntza mahai hauetako bakoitzak helburu zehatza dute, eta denak eskualdearen garapen ekonomikoaren alde lanean ari dira.

Eskualdean enpresa berrien sorrera bultzatzeko lanetan ari dira ondoko mahaia: eskualdeko ikastetxeek ikasle-

en artean sustapen kultura eta baloreak hedatzeko asmoarekin sortutako **sustapen kultura mahaia**; sektore ezberdinetako adituek osatu eta enpresa ideia berriak detektatu edo kontrastatzeko helburua duen **negozio aukera berrien mahaia**; eskualdeko bederatziko kooperatibek sortu eta kooperatiba berriei laguntza eskaintzeko helburua duen **kooperatiben mahaia**, eta enpresa sortu berriek beraien arteko sinergiak aprobetxatzeko sortutako **sustatzaileen sarea**. Mahai guztien gaineko informazio zehatza landu da *Sakonean* atalean.

Eskualdeko berrikun-

tza eta lehiakortasun maila handitzeko lanetan, aldiz, beste bi mahaiek dihardute; batetik, Okamika industrialdeko enpresentzako dibertsifikazio eta berrikuntza aukerak identifikatzeko dabilen **Okamikako berrikuntza mahaia**, eta azkenik, eskualde honetan turismoa sustatu eta indartzea helburu duen **turismo mahaia**.

Aurkezten ditugun zortzi orrialde hauek gustuko eta interesgarri izango dituzuenaren esperoan hurrengo edizioaren prestaketari ekingo diogu. Beti ere, gure eskualde honetako enpresa ehuna ezagutzera emateko asmoz.



enpresak sortzen

Diseinua, eraikuntza eta ingurumen proiektuen kudeaketa integrala eskainiz

Urtearekin batera hasi zen oinez Hirudi eta egun, iadanik, merkaturatu bere lekua egiten hasia da. Ideia berria, freskoa eta praktikoa eduki zuten hiru laguneko taldea batu eta haiek izan dira enpresari forma, izaera eta noratasuna eman diotenak.

Enpresa martxoan sortu zen arren, iazko uztailean jarri zuten horretarako lehen hazia. Azaro Fundazioa enpresak bultzatzen eta haien sorreran laguntzen ari zela jakinda, Esperantzara hurbildu ziren, profesionalei proiektu globalak eskaintzea helburu duen enpresaren proiektuarekin. Zehaztasunetara joz, diseinu grafikoa, web orrien diseinua, dekorazioa, obra zuzendaritza, ingurugiroa ... alor ugari ukitzen dituzte.

Azaroren hegalpean eman zituzten lehen pausoak. Oinarrizko baliabideak jarri zituzten haien eskura, eta egun Esperanza eraikinean daude. Hortik aurrerakoa hirukotearen esku gelditu zen.

Hirudi enpresa grafista batek, dekoratzaile batek eta biologo batek osatzen dute. Hiru lagun, hiru lanbide eta hiru aspektu jorratzeko asmoa. Hitz joko horretatik dator, hain zuzen ere, enpresari bere izena. Lan egiteko orduan, bakoitzak bere alorra zehatzago lantzen duen arren, proiektu bakoitzaren aurrean guztien ikuspegia hartzen dute kontuan, eta alor bakoitzaren ekarpenekin osotasuna ematen



Xabier Ibarluzea eta Igor Azpiri Hirudi enpresako hirukotea osatzen duten bazkideetako bi. G. GARGARZA

dieta bezeroen proiektuei. Diziplinartekotasun horretatik dator, hain zuzen ere, enpresaren indarra eta bereizgarritasuna.

Eguneroko lana

Hirudi enpresak, batez ere, hiru arlotara zuzentzen du bere lana: diseinua, kudeaketa eta garapena.

DATUAK

Webgunea: www.hirudi.com
Kontakturako helbide elektronikoa: hirudiigor@gmail.com
hirudixabi@gmail.com
Kontakturako telefonoak: 656772813 eta 647153606

Alor bakoitzaren barruan, lan mota ezberdinak egiten dituzte. Diseinuari dagokionean, besteak beste, web orrien diseinua eta erabilgarritasuna, grafismo lanak (txartelak, irudi korporatiboen lanketa...) eta maketazioa egiten dituzte. Horretaz gain, eta eraikuntza eta ingurumen alorrean, aurreproiektuak eta proiektuak ere

egiten dituzte. Kudeaketari dagokionean, web orrien eguneratzea, legediekin zerikusia duten tramite guztiak, baimenak lortzeko tramtazioa eta abar luze bat dira euren gain hartzen dituzten lanak. Eta azkenik, garapenean, web orrien garapena, inprentako lanen ardura, obra eta ingurugiro proiektuen zuzendaritza eta gestioa eta hiru dimentsiotako aplikazioak dira, besteak beste, egiten dituzten lanak.

Ikuspegi orokorrarekin aritzen dira. Eta bezero guztientzat atek zabalik dituzten arren, enpresa txikiak dira gehien batean haien bezero zuzenak. «Izan ere, eguneko lanak betetzen ditu enpresa txikien orduak, eta esate baterako, erakundeekin mantendu beharreko hartu-emanak zailtasun erantsia dira haientzat», diote Hirudiko kideek. Erakunde publiko, enpresa handi eta bezero partikularrentzako ere lan egiten dute.

Horrela, legedia aldetik gero eta exijentzia gehiago egonik —batez ere, ingurumenaren inguruan eta eraikuntza arloan, kode tekniko berriaren eraginez—, hutsune bat betetz, erakunde eta enpresa txikien arteko zubia da Hirudi. Hori dela eta, bezeroak hasi dira euren atea jotzen.

Hirudi enpresa bere komunikazio kanpaina integrala lantzen ari dira momentuan. Ondorioz, hurrengo hilabetetan enpresa berri bezain sendo honen berri izango dute herritarrek.

kooperatibean bidetik

elkarrizketa •••

JOXE MARI ULAZIA

(FAGOR ARRASATE ENPRESAKO PERTSONEN ARDURADUNA)

«Aktiboki protagonista izatea, egin beharrekoa ondo egitea besterik ez da kooperatibentzat»

Eibarko Armeria Eskolan, Debegesan, Gestio Eskolan eta Sestaoko ACBn lan egin ondoren, Joxe Mari Ulazia Ibarzabal (Mutriku, 1954) azken hiru urteetan Fagor Arrasate Kooperatiban Pertsonen Ardura lanetan ari da.

Zer da Enpresaren Gizarte Erantzukizuna? Nola ulertzen da?

EGE kontzeptua, enpresaren hazkundearen eta garapenean zer nolako ibilbidea egin daitekeen markatzen digun kontzeptu aurrerakoi bat bezala ulertzen dut. Nahiz eta enpresa baten helburua ez izan, edo horretara behartuta ez egon, enpresak bere ibilbidean, gizarteari modu etiko eta arduratsu batean eskaintzen dion laguntza eta ekimena da.

Zer giza-erantzukizun mota daude? Zertan datza bakoitzak?

Badira bai, barrura begira egiten diren ekintzak; adibidez, lan osasun eta segurtasun ataleko gaiak, edota, ingurumen ikuspuntutik, kudeaketa jasangarriago baten aldeko ekimenak. Azken horien artean, kutsadura, isurketak eta materialen kontsumoa murrizteko ekimenak daude, esate baterako. Hala ere, nire iritziz, horrek ez dauka aparteko meriturik, egungo gestio bideak horretara behartzen baikaitu. Aipagarriagoa da benetan, horretara beharturik egon gabe inguruarekin eta gizartearekin modu altruista batean aritzea eta kolaboratzea. Ildo honetan, eta kooperatiba ikuspegi batetik, nahiko adibide garbi eta hurbilak ditugu: inguruan enplegua sortzea, Azaro bezalako ekimenak bultzatzea; hezkuntza munduari — eta, zehazki, Mondragon Unibertsitateari eta Lea Artibai Ikastetxeari — ematen zaion laguntza; kooperatibetan euskararen normalkuntzarako egiten ari garen ahalegina; HITZA egunkariari emandako laguntza; kooperatiben arteko elkartasun eta banaketa komunitarioa; Fagor Arrasateren kasuan, Saharako Emakumeekin eta Seaskako Ikastolekin ireki berri ditugun laguntza eta ekimenak...

Noiz hasi dira eskualdeko enpresak EGE terminoa erabiltzen eta zabaltzen?

Eskualdeko enpresa guztien izenean ezin dut hitz egin, baina jakin be-



Joxe Mari Ulazia irudi bat.

har dugu eskualdeko kooperatibentzat hau ez dela *management* modernoak dakarren moda bat, ezta gutxiagorik ere. Kooperatibek euren sorreratik bertatik inguruarekin lotura izan dute, eta laguntza eta konpromiso handia eta estua eduki dute. Izan ere, kooperatiba proiektua horrela ulertzen da, eta horrela ulertzen dugu.

Zergatik egin EGE-ren aldeko apustua? Ze onura ekar dezake hori egiteak?

Esan bezala, gure apustua hasiera beretik datorrena da. Horrela ulertzen dugu gure kooperatiba proiektua. Gizartearen ongizate maila hobetzen laguntzen dugun neurrian, benetako konpromisoarekin zenbait arazo eta injustizia soziali irtenbidea ematen saiatzen garenean, edo eta, garapen jasangarriago baten al-

deko apustua egiten dugunean; aktiboki protagonista izatea, kooperatibentzat egin beharrekoa ondo egitea besterik ez da. Gizarteak horrela ikusi eta horrela antzematen bagaitu, hainbat hobe!

Aurrerantzean enpresak emango dituzten pausoak zeintzuk izango direla uste duzu?

Nik uste, besteak beste, globalizazioaren eraginagatik nazioarte mailako lotura eta laguntza bideak ugariagoak izango direla. Adibidez, bagegintzaren inguruko laguntza ekimenak, gizaki guztion arteko berdintasunaren aldeko ekintzetan murgiltzea, eta abar. Nik uste horrelako edo antzeko ekintzak izan daitezkeela etorkizunean emango diren pausoak. Edo, hobeto esanda, niri pertsonalki, hala izatea gustatuko litzaidakeela.

Enpresaren Gizarte Erantzukizuna, geroz eta kontzeptu entzunagoa da enpresa munduan.

Merkataritza-eragiketetan eta harremanetan, enpresek kezka sozialak eta ingurumen-kezkak borondatez kontutan hartzea bezala definitzen da. **“Zein ideia eta pentsamendu bururatzen zaizkizu enpresa bateko partaide gisa?”**

iritziak •••



JOSE MARI OGANDO •
Automozio sektorerako lan egiten duen enpresa talde baten zuzendari industrialia

Enpresaren Gizarte Erantzukizuna orain dela hogeitabat urtetik enpresa handietan existitzen den ideia bat da.

Lehen pausoa, enpresaren bila-kaeran langileak —beraien konpromisoaren eta talde lanaren bidez— enpresaren ezinbesteko atal kontsideratzea izan zen. Bigarren pausoa kanpoko bi agente barnatzea izan zen: hornitzaileak eta bezeroak. Horrela, lehiakide izatetik kide izatera pasatu ziren. EGE-a enpresa estratigiara gehitzea ebolutzio honen hirugarren pausoa da.

Enpresaren lehen helburua irabaziak lortzea delarik, EGE-k legeak errespetatzetik eta garapen jasangarria lortzearen oinarri etiko batetik abiatuz, ingurua, lekua eta pertsonak enpresako estratigiaren ezinbesteko piezat hartzen ditu.

Lea-Artibai eskualdearen ezauzgarri konpromiso honi plus bat ematen diote: Alde batetik, iraultza industrialia gure herrietara be-

randu heldu izana, eta bestetik, Lea Artibai Ikastetxea edukitzea. Azken hori indargune garbia da ondo prestatutako pertsonak dardelako. Hala ere, alferrikakoa izango da, lanpostu berriak sortzeko gai ez bagara.

Iraultza berri baten ateetan gaudela. Ezagutzaren eta teknologia berrien iraultza, hain zuzen ere. Eta hau ez galtzeko honakoak behar ditugu: Inguruarekin identifikaturik sentitzen diren pertsona ekintzaileak eta EGE barneratu duten enpresak. Era honetan, demokrazia korporatiboa, jasangarritasuna; bezeroekin, hornitzaileekin, lehiakideekin eta administrazioarekin elkarlana; gardentasuna... bezalako faktoreak beraien estratigietan barneratu dituztenak. Estrategia hau ez izateak, hainbat arrisku dakartza: deslokalizazioa, pertsonen deskapitalizazioa eta beste batzuek erabakiak hartzeko estratigietan oinarritzea.

LUIS FERNANDEZ •
Xemein Elektrik Koop. Elk.
xemeinelek@xemeinelek.com



Kooperatiba sortu genuenetik enpresa soziala izatera bideratu nahi izan genuen, eta horrekin batera, behararen kontzeptua aldatzen saiatu nahi genuen: zigor bat barik, gizarteari, edo behintzat gure inguruari ekarpen bat egin nahi genion.

Inguruan genuena ezagutu ondoren, hutsune bat ikusi genuen, eta hura betzea zen gurea asmoa kooperatiba sortzea erabaki genuenean; eta horrekin batera, baita bertatik bizi ahal izatea ere; gure esfortzutik bizi ahal izatea. Hortik sortu genuen Xemein orain urte bi, eta horretan jarraitzen dugu.

Enpresak, orokorrean, aurrez jarritako helburuen arabera aritzen dira, eta alde soziala eta ekonomi-

koen artean ekilibrio lortzea da gaitzena. Enpresa handietan, batez ere, horrela izaten da. Interesgarriena izango litzateke horri buelta ematea.

Ziur naiz enpresa handietan ere badela aldaketa soziala bilatzen duen edo bultzatu nahi duen jendea. Baina oso zaila da ontzi horiek zentzu horretan mugitzea. Kooperatibetan, bertan, tira bira horiek nabariak izaten dira.

Enpresen erantzukizun sozialaren kontzeptua gure inguruko enpresetan nabaria dut. Eta enpresen sorreran barneratu beharreko kontzeptua dela iruditzen zait. Helburu ekonomiko hutsen bila lan egiteak ez baitu konpentsatzen. Zerbait gehiago beharrezkoa da.

sakonean >>>

Lea-Artibain berrikuntza eragiten

Ikastetxe, enpresa eta sustatzaileen mahaiak eratu dituzte Azarok eta Garapen Agentziak

Azaro Fundazioa eta Lea-Artibaiko Garapen Agentziaren beharretako bat eskualdeko enpresen lehiakortasuna bultzatzea da, eta lan horretan, ezinbestekotzat jotzen dute enpresen arteko elkarlana. Hori dela eta, 2006an eta 2007ko lehen sei hilabetean ekintza plan bat eratu dute aurrera, komunikazio eta elkarzagutzia hori lantzeko xedearekin.

Hainbat mahai sortu dira, bi ardatz nagusitan banatuta: bate-tik, sustapen kultura bultzatzea, eta bestea berrikuntza eta lehiakortasuna helburutzat hartzea. Biak batuta, guztira sei mahai eratu dira eskualdean, bakoitza sektore bateko enprekin edo helburu antzekoak dituztenekin osatuta. Horien bidez, enpresa ehunera hurbildu eta beraien beharrezan eta espektatibetan sakondu nahi dute Azaro Fundazioak eta Lea-Artibaiko eta Garapen Agentziak.

SUSTAPEN KULTURA INDARTZEKO MAHAIK Ikastetxeen mahaiak.

► 2005eko urrian osatu zen ikastetxeen mahaiak.

► DBH, Batxilerra eta Lanbide Heziketa irakasten duten eskualdeko sei ikastetxe dira partaideak: Ondarroako Txomin Agirre Ikastola, Zubi Zahar Ikastola, Ondarroako eta Lekeitioko Iturriotz Institutua, Lekeitioko Resurreccion Maria Azkue Ikastola eta Markina-Xemeingo Bera Kruz Ikastetxea.

► Mahai honen helburu nagusia ikasleen artean sustapenagaz lotutako baloreak lantzea da. Eskualde honen egitura ekonomikoa eta auto-plegua lan merkatura sartzeko bidea dela azaldu nahi zaie. Eskualdeko enpresen egoeraren berri eman ostean, horien garapenean ikasleek eurek daukaten funtsezko papera erakusten zaie.

► Hori guztia egiteko, hainbat ekimen egin dira urte bitan:

-2005ean sustapenari buruzko idazlan lehiaketa egin zen.

-2006an aurreko urtean egindako ekintzak errepikatzeaz gain, argazki lehiaketa, enpresa batera bisita eta sustapena hedatzeko jardunaldia egin ziren aitatutako ikastetxe batzuetan.

-Aurten, mahaiaren beraren eraketa egin dute sei ikastetxeek.

Adituen mahaiak.

► Eskualdean egon daitezkeen negozio aukerak detektatzeko helburuagaz, inguruko adituekin harre-



Ikastetxeen mahaiak egin dituen batzarretako baten irudian, ikastetxeetako eta Azaro Fundazioako ordezkariak.



HAUSNARKETA AMANKOMUNERAKO MAHAIK

MAHAIK	1	2	3	4	5	6
Sustapena	Ikastetxeen mahaiak	Adituen mahaiak	Kooperatiben mahaiak	Sustatzaileen sarea		
Berrikuntza eta lehiakortasuna					Okamika Industrialdeko berrikuntza mahaiak	Turismo mahaiak
Foroen partaideak	Eskualdeko sei ikastetxe	Sei enpresetako adituak	11 kooperatiba	48 enpresa berri	Sei enpresa	14 ostalaritza enpresa

manetan jartzen hasi da Azaro Fundazioa. Lea-Artibaiko sektoreen egoera zein den ikusi, eta etor daitezkeen egoeren eta negozio aukeren gainean egingo da berba aditu talde horregaz. Elkarregaz, ideiak kontrastatuko dituzte, eta enpresetan barne sustapena martxan ipini.

► Denak dira zuzendari teknikoak, ikerketa eta garapen arlokoak edo eta produktu ingeniariak; lan munduan esperientzia zabalekoak.

Kooperatiben mahaiak.

► Lea-Artibaiko eta inguruko kooperatiben mahaiak martxan dago 2003tik.

► Barrenetxe, Burdinola, Cikautxo, Eika, Miba, Kide, Lealde, Euskadiko Kutxa, Gaztempresa, Fagor eta Maier kooperatibek osatzen dute mahaiak, eta Azaro Fundazioa da koordinatzailea.

► Ekonomia sozialaren filosofia eta baloreak zabaltzea, baliabideak, iritziak eta orientazioa emateko iritzi foro bat izatea, hainbat

sektoretako informazioa ematea eta kooperatiba berrientzako laguntzak eta horiek banatzeko irizpideak zehaztea ziren mahaiaren helburuetako batzuk, eta hala dira oraindik ere.

► Mahaiak Eusko Jaurlaritzak kooperatiben sorrera bultzatzeko atera zuen dekretu baten ondorioz sortu zen. Honako baldintzak ezarri zituen Jaurlaritzak: gizarte ekonomiko sei enpresa sortzea, eratu osteko hiru urteetan hamabost lanpostu sortzeko gai izatea, edo eta gutxienez 100.000 euroko inbertsioa egitea.

► 2003-2006 urtean artean sei kooperatiba eta 83 lanpostu sortu zituzten. Errealitatea dira gaur egun Durangoko Kafe Antzokia, Mendilankor, Leabai, MCI, Xemein eta Oizpe kooperatibak.

► Kooperatiben mahaiak laguntza ekonomikoak jarri zizkieten eskura kooperatiba berrioi. Enpresa berrien inbertsioa 60.000 euro baino txikiagoa denean, %20 ordaintzen du; ostera, handiagoa bada, %15,

beti ere gehieneko laguntza 60.000 eurokoa dela jakinda. Inbertsiorako diru laguntzez gain, beka batzuk ere ematen dizkiete: gehienez, hamar hilabetean 360 euro hiler. Proiektuko hiru beka gehienez. Laguntza ekonomikoaz gain, bestelako gunea ere eskaintzen diete: ideiak kontrastatzeko, proposamen eta aholkuak jasotzeko eta animoak emateko.

► 2007an eta aurrerantzean, dinamika hauekin jarraituko da.

Sustatzaile sarea.

► Azaro Fundazioaren laguntza-gaz orain dela gutxi sortutako enpresek osatzen dute sustatzaile sarea pasa den martxotik.

► 168 lanpostu dituzten 48 enpresa dira partaideak (Azaroren web orriari agertzen dira: www.azaro-fundazioa.com).

► Gehien arduratzen dituzten gaiak, erronkak eta ezagutzak konpartituko dituzte sarean, eta horiek gaintu behar direnean zelako laguntzak dituzten jakinarazi.

► Sareko partaideei hainbat zerbitzu eskaintzen dizkiete Azaro Fundazioak: informazioa, enpresa gida, formazioa, enpresen finkapena lortzeko aholkularitza, bitartekaritza, zerbitzu profesionalak kontratatzeko lehenetsuneko baldintzak eta sariak, eta publizitatea. Horrez gain, hausnarketa estrategikoa eta planifikazioa epe labur eta ertainera egiteko zerbitzua ere eskaintzen dute, bai eta merkatu ikerketak eta berrikuntza bultzatzeko perspektiba edota dibertsifikazio proiektuak egiteko laguntza.

BERRIKUNTZA ETA LEHIKORTASUNA INDARTZEKO MAHAIK Okamika Industrialdeko berrikuntza mahaiak.

► Gizaburuagako Okamika industrialdeko zenbait enpresagaz osatu da mahaiak: Kautxo Tiuna, Leabai Koop. Elk., Zurgin, Hika-Mika, Armearri, Laneko Koop. Elk. eta Eluark. Antzeko mehatxak dituzten enpresak dira batu direnak, eta beste hamarregaz ere elkarriketak egiten dabil Azaro Fundazioa.

► Antzeko mehatxuei berrikuntzaren bitartez egin beharko diete aurre. Horrez gain, jardueren dibertsifikazioa lantzeko, kostuak ahalik eta txikiak izan eta lankidetzarako sinergiak egitea ere oso garrantzitsua da.

► Okamikako mahaiaren helburua, produktu helduen eta ez hain kompetitiboen sektoreko enpresen eta enpresa handien azpikontratan mehatxu eta aukeren gainean hausnartzea da. Baina baita ahulezietan sakondu eta aurre egitea ere: baliabideak ahalik eta ondoen optimizatu eta kostuak gutxituz.

► Lehenengo fasean egindako batzarretan honako gaiak aztertu dituzte: dibertsifikatu beharra, kalitatea, lan-arrikuak, ingurugiroa, Informazio eta Komunikazio Teknologiak (TIC deitzen direnak), «Outsourcing-a», merkatuen dibertsifikazio ikerketa eta Nazioarteko Partzuergo bezalako gaiak ipini dituzte mahai gainean.

► Okamikako industrialdean 32 enpresa daude, eta guztira, 407 lanpostu zuzen daukate.

Turismo mahaiak.

► Lea-Artibaiko sektore turistikoaren lehenengo foroa egin da. Gainera, ostalaritza arloan beharra egiten duten 90 enpresei aurkeztu zaie, eta bide batez, eskualdearen promozio turistiko bultzatzen lagundu nahi dietela esan. Lea-Artibaiko Garapen Agentzia da turismo mahaiak kudeatzen duena.

> >>> sakonean



Okamika Industrialdean berrikuntza mahaia ipini dute martxan sei enpresak.



Sustatzaileen sareak bere lehenengo batzarra egin zuen Sustatzaileen Egunean; 48 enpresa dira bertako partaide gaur egun.

▶ Aitatutako foroan, eskualdeko hamalau enpresek hartu zuten parte eta eskualde mailako elkarte bat sortzeaz egin zuten berba.

▶ Elkarte horren helburuak, honako hauek izango lirarteke: eskualdearen erakargarritasun turistikoagaz lotutako ekimenak egitea, elkarte ezberdinen arteko sinergiak aprobetxatzea eta enpresen lehiakortasuna hobetzea.

▶ Mahaiaren partaideekin honako eduki hauei buruz hausnartzeko asmoa daukate: formazioa, hedapen jardunaldiak, informazioa,

aholkularitza, negozio ideien prospekzio lanak, enpresa proiektuen bideragarritasunaren ikerketa eta sektorearen buletin ofiziala.

ONDORIOAK

Azaro Fundazioak eta Lea-Artibaiko Garapen Agentziak eskualdeko enpresei, eta eskualdeko enpresek hauei lagunduta, denen artean, Lea-Artibain lehiakortasuna bultzatu nahi dute.

Horretarako Azarok dekalogo bat prestatu du. Bertan, lan egin beharreko eremu estrategikoak ager-

tzen dira. Hona hemen laburbilduta eremuok:

▶ **Berrikuntza.** Enpresen arlo ezberdinetan: antolaketa, pertsonak, produktuak edota prozesuak.

▶ **Dibertsifikazioa.** Jardueren dibertsifikazioarako negozio aukera berriak detektatzea. Horretarako gakoa ikerketa da.

▶ **Idea berriak.** Produktu eta zerbitzu lehiakorren inguruan enpresa berriak sortzeko enpresa ideia berriak detektatu beharra dago. Horretarako ere, ikerketa funtsezkoa izango da.

▶ **Outsourcing.** Beste enpresa batzuei kontratatutako zerbitzu eta lanek (outsourcing) sortzen dituzten gastuen optimizazioa egin beharra ikusten da.

▶ **Gidaritza.** Zuzendaritza generikoen lehiakortasunaren garapena beharrezkoa da: gidaritza transformazionala.

▶ **Ezagutzia.** Ezagutzaren kudeaketa hobetu eta sistematizatu beharra dago.

▶ **Printzipioak.** Printzipioen garapena, berrikuntza eta sustapena bultzatzea beharra errazteko.

▶ **Elkarlana.** Eragile ezberdinen arteko elkarlana behar da, sareko entitateen ahuleziak gaintitu eta ahalmenak indartu eta maximizatzeke.

▶ **Konpromisoa.** Lea-Artibaiko eskualdearen garapenean eragile eta enpresa denen konpromisoa ezinbestekoa da.

▶ **Bitartekaritza.** Lea-Artibaiko eskualdearen baliabideak norabide berean jarri ahal izateko, bitartekaritza eragile tinkoak, egonkorak egoteak izugarriko garrantzia dauka.



elkarrizketa ••• AINARA BASURKO (AZARO FUNDAZIOKO ARDURADUNA)

«Mahai horiek sortzea guztiz lotuta dago Esperanza 2013 proiektuarekin»

Berrikuntza eta ekintzailetasuna bultzatzeko asmoz, hainbat alorretako eragileak batzen dituzten mahaiak sortu dituzte Azaro Fundazioak. Behar horretan dabil Ainar Basurko (Ondarroa, 1972).

Zein helburu dute mahaiak?

Mahai batzuk modu naturalean sortu dira, baina beste batzuk guk bultzatu ditugu. Gure ustez, Lea-Artibaiko eskualdeko enpresa sarea ez da oso indartsua, baina argi dauka nondik nora jo behar duen. Alde batetik, enpresek aurrera egiteko, lehiakorrak izateko, berri egin behar dira. Eta beste aldetik, enpresa berriak sortu behar dira, eta beraz, ekintzailetasuna bultzatu behar da. Hori ez da guk egindako asmakuntza. 1994an jada, eskualdeko lehenengo plan estrategikoa egin zenean, gai hori mahaigaineratu zen.

Berrikuntza da ardatzetako bat.

Bai, eta horretarako, agente ezberdinen eta batez ere enpresen inplikazioa beharrezkoa da. Horrela bultzatu dugu, adibidez, Okamika mahaiaren sorrera. Han, sektore ezberdinetako enpresak daude, baina denek daukate amankomunean ideia bera: berri egin behar dela. Gutxika-gutxika, bertako egoeraz denon artean berba egin, eta berrikuntzarako aukerak non egon daitezkeen hausnartu nahi dugu. Gainera, sentsibilizatzeko balioko du, aldatu egin behar dela kontzientziatzeko. Berrikuntzaren mundua ukitzen dugu bai Okamika mahaiagaz, sustatzaile sareaz, eta baita turismo mahaiagaz ere.

Eta ekintzailetasuna?

Kasu honetan ere agente aktiboak inplikatzeko beharrezkoa zela ikusi genuen. Orokorrean, gizartea bera da ekintzailea, baina badaude ba-

tzuk klabeak direnak: ikastetxeak eta enpresak.

Zergatik?

Ikastetxeetan dago etorkizuneko enpresak sortuko dituen jendea, enpresetan beharra egingo duena... Eskoletako zuzendariekin eta Azaroko teknikariek mahaiak sortu genuen, eskoletan sustatzaile baloreak bultzatzeko. Bestalde, enpresak daude. Horietan daude baldintza egokienak proiektuak sortzeko.

Beraz, helburuak betetzen doaz?

Mahai horiek sortzea guztiz lotuta dago Esperanza 2013 proiektuagaz. Azaro Fundazioak eta Lea-Artibaiko Ikastetxeak iaz definitu genuen eskualdeko proiektu bat da; besteak beste, 90 enpresa eta 500 lanpostu sortzeko. Guk bakarrik ezin dugu hori aurrera atera, enpresak sortu edo berriak dituztenak, eragileak eurrak dira (enpresak, ikasleak...). Gure beharra laguntza ematea da.

Sortutako mahaiak gain, ba al dago asmorik besterik eratzeko?

Momentu honetan denetarikoa daude: batzuk finkatuta, eta beste batzuk hasi berri. Adibidez, kooperatiben mahaiak bere ibilbidetxoak dauka dagoeneko, eta Okamika mahaiak, oster, hilabete batzuk ditu bakarrik. Enpresak eta erakunde ezberdinak elkarlanean ipini behar ditugu. Gerora zein mahai egongo den ez dakigu, baina elkarlaneko dinamika bultzatu behar dela argi daukagu.

Arlo honi dagokionez, zer helburu dituzue aurrera begira?

Azken helburua 90 enpresa horietara heltzea, lanpostu berriak sortzea eta eskualdeko enpresak lehiakorrak izatea da. Azken helburu hori begira doaz foro horiek.

Eskualdeak lehiakorrak izan behar duela diozue sarritan.

Beste eskualde batzuekin alderatu-



Ainar Basurko argazkian.

ta, ez daukagu horrenbeste enpresa, ezta hain handiak ere. Hemengo enpresa askok produktua nahiko heldua daukate, baina jendea indartsua da, kontziente da eskualdearen errealitateagaz. Beraz, jendea batu eta proiektu ezberdinak ipini behar ditugu martxan. Horretarako, garapen agentzia, eskualdeko bi amankomunagaz eta udalekin elkarlanean gabilta. Garrantzitsua da geure artean ondo koordinatzea eta baliabideak ondo antolatzea, ahal denik eta zerbitzurik onena emateko enpresa ehunari. ◀



eskualdeko enpresak ezagutzen

ETXEBARRIA • ANSOTEGI HOTELA

Bizitzaren beste ikuspuntu bat

Ansotegi nekazal hotelak lasaitasunez egoteko gune eroso, atsegin eta lagunartekoa eskaintzen du



Espazio zabalek eta ondo zaindutako detaileek osatzen dute baserriaren barneko alde.

Etxebarrirako bidean, eskumatarara gorderik dagoen Ansotegi dorretxearen alboan dago izen bereko hotela. Historiaz inguratuta eta historiaz jantzita, bizitzari beste begi batzuekin begiratzeko txoko aproposa eskaintzen du nekazal hotelak.

Mendiz, basoz eta larrez inguratua, lasaitasun giroa da nagusi Ansotegi Hotelaren inguruan. Barruan, berriz, lasaitasun horri beste ezaugarri bat ere batzen zaio: hotela aurrera eramateko modu berezi batetik eratortzen den epeltasuna. Orain dela bederatzir urtetik Hernando-Etxebarria familiaren esku dago Ansotegi. Familiako filosofiari jarraituz, bezeroak etxean bezala sentiaraztea dute helburu, eta horretarako formularik egokiena erabiltzen dute: familiako kide bailiren, goxo, eroso, lagunartean... sentiarazten dituzte bezero zein bisitariak.

Horretaz gain, ingurua bizitzen ere laguntzen diete. Egune-

ko irteerak, inguruan ikusi eta gozatu dezaketaren informazio zabala... hori guztia jartzen dute bezeroen eskura.

Baserriaren izaera

Inguruak eta bertakoen jarrera eta izateko moduak ezezik, hotela kokaturik dagoen baserriak berak, zerikusi handia dauka Ansotegin dagoen giroagaz.

Burdinola eta errota izandako garaiak joanak diren arren, oraindik bizirik daude orduko aztarnak. Gainera, Ansotegi baserriaren izaera eta arima errespetatuz eraiki zuten. Etxeak eskatzen zuen moduan berreskuratu eta birgaitu zuten.

Material nobleak erabili dituzte baserria bizitzara bueltatzeko: egurra, harria eta burdina dira etxearen oinarria. Eta horren gainean, gustu handiko dekorazioa jarri dute. Horrela, espazio zabalen erosotasunari eta askatasunari epeltasun eta hurbiltasun goxoa emanez.



JATETXE ZERBITZUA

Ansotegi nekazal hotelak egoteko gune paregabea eskaintzeaz gain, jatetxe zerbitzua ere badu. Sukaldaritza tradizionala da eskaintzaren oinarria, baina plater guztiek daukate Ansotegi hotelaren ukitu berezi bezain moderno. Eta prezioa eta kalitatea ere parean egotea dute helburu.

Jatetxeko atea zabalik daude bezero zein kanpokoentzat, baina, beti ere, bezeroek dute lehentasuna. Hori dela eta, enkargu bidez egiten dute lan. Horrela, hotelaren egoeraren arabera, plangintza egokia egiteko aukera dute, eta otordu atseginaren bila datorrenari halaxe izatea bermatzen diote. Masifikazioetatik urrun, presa eta ito-tasunetik ihes egiteko gune aproposa Ansotegi, beraz.

MUTRIKU • AKILAPE ALTZARIAK

Kalitatea eskainiz, neurrirako zerbitzua

Merkatuan dagoena ezagutzuz, hobetzea dute helburu

Toxu zenaren errautsetatik sortu zen Akilape. Merkatuaren gorabeherak medio, enpresarekin aurrera egiteko langileekin bat egitea erabaki zuten Toxu anaiek. Eta enpresa bere horretan 13 bazkideren esku — bi anaiak barne — utzi zuten.

Ordutik aldaketa eta berrikuntza olatuak hartu zituen. Euren produktua definitzea eta lan modua zehaztea izan ziren lehen pausoak. Ez dituzte sukaldeak egiten, ez dira arotzak... Altzariak, eta batez ere, armairu eta liburutegiak, neurrirako egiten dituen enpresa bat da. Neurrirako zentzu guztietan, altzariak ez baitituzte bakarrik espaziora egokitzen, beharrezan erantzuteko prestatuak eta praktikotasunera bideratuak daude. Beti ere, materialen kalitatea eta testuingurua kontuan hartuta.



Domeka Lasarte: «Testuinguru eta beharrezan guztiak kontuan hartzen ditugu Akilapen».

Material sorta zabala erabiltzen dute. Oinarrian, egurra, kristala, larrua eta aluminioa dituzte. Hortik abiatuta imajina ezinezko barietatea eskaintzen dute. Materialaz gain, armairuen atea irekitzeko orduan, armairua eta inguruan egon daitezke-

en tresnak antolatzerako orduan (ispiluak, esaterako)... erantzunak dituzte leku eta bezero bakoitzaren beharrezan arabera.

Enpresa bi zatitan antolatu zuten: alde batetik, erakusketa (denda) publikoari zuzendutako gunea; beste alde batetik, profe-

sionalekin — dendei ematen dizkieten zerbitzuak, dekoratzaile eta kontratistek egindako lanak... — egiten dute lan.

Berrikuntza buruan

Enpresa barruan plangintza estrategikoa egin berri dute. Helburua: produktua hobetzearekin batera, enpresa bera ere berritu eta garaiekin bat etortzeko bidea egin.

Horretarako, alde batetik, kalitate kontzeptu berriak barneratu dituzte, eta komunikazio integratuean sisen duten heinean, lanaren prozesu guztia lotuta egoteko baliabideak jarri dituzte.

Gainera, merkatuaren mugimenduak eta berrikuntzak ezagutzeko joera dute; nazioarteko azoka garrantzitsuetan informazioa bilduz

Euren mugak ezagutzen dituzte, eta horiek gaitzeko ari dira lanean. Espazioa txiki gelditu zaienez berrantolatu egingo dute, tarteko solairu bat lortzeko.

Horrekin, orain arte kanpoan egin behar izaten zuten lanetako bat barruan mantenduko dute; kalitatea mantenduz eta denboran irabaziz. Izan ere, produktu ona pareko zerbitzuarekin elkarloturik ulertzen dute Akilapen. Horrekin batera, makinatan ere inbertsio handia egingo dute.

Merkatua zabaltzekotan dira. Gaur egun Euskal Herria bere osotasunean eta Errioxan lan egiten dute, eta laster Asturias, Cantabria, Valladolid, eta Burgeseraino iritsiko dira Akilapen altzariak.

Euren zigilua zein izan behar den argi dute: produktu ona, kalitatekoa, diseinua zaintzen duena eta zerbitzu egokiak lagundua.

Helburu guztiak betetzeko, kontzeptu berri bat ere lantzen ari dira: enpresen arteko lankidetzak. Bakoitzak bere alorra mantenduz, orain arte emandako zerbitzu bikaina zabaltzea posible egiteko.

MARKINA-XEMEIN • 11BARRI

Komunikazio lanak, osorik eta eskura

Egunkari digitala kudeatzeko eratu arren, gaur egun zerbitzu sorta zabala daukate

Egoerari eta beharrezanean egokitzen joateko ilusio eta gogoari erantzuten dio 11Barri Komunikazio enpresak. Egunkari digitala kudeatzea zen bere egitekoa 2004an sortu zenean. Orain, berriz, lan esparru zabalagoa hartzen du.

LEA-ARTIBAI ETA MUTRIKUKO HITZA egunkariaren hegalpean sortu zen, eta hasieran bezalaxe, haren lankide izaten jarraitzen du. HITZA-ren Markina-Xemeingo erredakzioan bertan dago 11barri, eta horrela, bien arteko sinergiak ahalik eta ondoen aprobetxatzen dituzte. Komunikazio enpresaren ardura izaten jarraitzen du www.11barri.info egunkari digitalak, baina hori bere lan esparruetako zati bat besterik ez da. Komunikazio digitalean webguneen mantenimendua eta diseinua ere eskaintzen dute orain. Horretaz gain, kazetaritza eta komunikazio zerbitzu integrala lantzen dute, eta diseinu grafikoari loturiko lanak eta maketazio zerbitzua eskaintzen dituzte.

Lan esparrua zabaltzeko bideari ekitean lan taldea ere indartu egin dute. Diseinu grafikoan urteetako esperientzia duen Nekane Akarregiri, Eli Azpiazu diseinatzaile grafikoarekin ere gehitu zaio. Horri esker, gainera, webguneen diseinu eta mantenimendu zereginetan hasteko modua egin dute. Horretaz

gain, kazetaritza eta hartu-eman komertzialetan diharduen beste lankide bat ere badute.

Enpresaren bereizgarria
Eskaintzen dituzten zerbitzu guztien artean, 11Barri Komunikazio enpresaren bereizgarria komunikazio proiektuak bere osotasunean lantzea da.

Bezeroek (Udalak, ikastetxeak, enpresak, elkarteak...) mezu bat kaleratu nahi dutenean, bete beharreko bide guztia lantzen dute: testuak idatzi, itzulpenak egin, argazkiak atera... eta ondoren, diseinua eta maketazioari loturiko atalari ekiten diote. Inprentekin beharrezko gestioak egiteaz ere arduratzen dira. Horrela, produktuaren ardura osoa euren gain hartzen dute

Publizitate arloa ere ez zaie arrotza egiten. Izan ere, diseinua egiteaz gain, iragarkiak medioetan argitaratzeko bitartekaritza ere egiten dute, eta haiekin lan egiteak abantailak dakartza HITZA egunkarian iragartzeko orduan.

Bezero partikularren beharrak ere kontuan hartzen dituzte: txartelak, edozein formatotako egutegiak, gutun-azalak, kartelak... denetik egiten dute. Eta bertokoak izanik, bertoko errealitateari moldatutako prezioak erabiltzen dituzte.



Nekane Akarregi, Maribi Ugarteburu eta Eli Azpiazu, 11 barriko kideak.

lea-artibai ikastetxea >>>



elkarrizketa •••

MONIKA AMILLATEGI
(LEA ARTIBAI IKASTETXEKO
ADMINISTRAZIO SAILEKO IRAKASLEA)



«Formazioa ahalik eta osoena izateko egiten dugu lan»

Praktiken eta lan poltsaren bidez ikasleen %100 laneratzen dute



Urtarrilean egin zuen bat Monika Amillategi (Markina-Xemein, 1981) Lea Artibai Ikastetxeko Administrazio Sailarekin. Ikastetxean bertan burutu zituen ikasketak Amillategi, eta Oñatin Enpresen Zientziak ikasita osatu zuen bere ikasle ibilbidea. Hiru urte eta erdiz banketxeen munduan lanean aritu ondoren, berriro Lea Artibai ikastetxera itzuli da. Oraingoan, ordea, batez ere, finantzekin loturiko irakasgaiak daude bere esku.

Zer eskaintzen du administrazio sailak?

Batxilergoan klaseak emateaz gain, Administrazioa eta Finantzak goi mailako zikloa eskaintzen dugu. Bi urteko iraupena du, baina azken sei hilabeteak praktikak egitera zuzenduta daude. Inguruko enprekin ditugun hitzarmenak medio, ikasleek euren ezagupenak mundu errealean aplikatzeko aukera dute.

Zikloaren gainontzeko urte eta erdia klase teorikoez osatzen al dute?

Teoria ikasteaz gain, ezagutza praktikara eramateko aukera ere badute. Izan ere, ikastetxearen barruan, enpresa simulatu bat dugu. Hiru sailetan dago ba-

natuta: giza-baliabideak, kontabilitatea eta hornikuntza. Hiruren artean koordinatuz, benetako enpresa bat balitz bezala egiten dute lan. Proiektuari ahalik eta egiakotasun gehien emateko, beste ikastetxe batzuetako enpresa proiektuekin harreman ekonomikoak dituzte.

Noiz hasten dira ikasleak enpresa proiektuan parte hartzen?

Lehenengo mailatik. Hasieran oinarriko jakintza barneratzen laguntzen diegu, eta otsailetik aurrera ikasten duten guztia praktikan jartzen dute. Formazioa ahalik eta osoena izateko egiten dugu lan.

Lan mundura integratzeko aukerarik izaten al dute

Ia guztiek praktikak egin dituzten lekuetan bertan lanean jarraitzeko aukera eduki dute. Horretaz gain, lan poltsa bat ere badaukagu, eta enpresetatik eskaerak egin ahala gure ikasleei deitzen diegu lanpostu horietan interesa duten jakiteko; eta hala balitz, pauso hori ematen laguntzen diegu. Horrekin, gure ikasleen laneratzea %100ekoa izatea lortzen dugu.

Aurrera begira proiektu berririk ba al duzue?

Enpresa Gazte Europearren programan parte hartzeko as-

moa dugu. Programa horrek enpresa simulatuen antzera funtzionatzen du, baina gehien batean sal-erosketetan dihardute. Informazio eta komunikazio teknologia berrien erabilera bultzatu nahi da programa horren bidez. Gainera, atzerriko ikastetxeekin merkataritza-harremanak edukiko dituztenez, hizkuntzak erabiltzeko aukera edukiko dute.

Zeinek edukiko du aukera programan parte hartzeko?

Administrazioko ikasleak ez diren beste guztiei eskainiko diegu. Gure azken helburua, ekin-tzailetasuna bultzatzea da. Hori dela eta, Enpresa Gazte Europearra programaren bidez, oinarriko administrazio eta finantza ezagutzak barneratzeko aukera eman nahi diegu, etorkizun batean euren enpresa propioa martxan jartzeko beharrezkoa izango duten atal bat gehiago menpera dezaten.

Eta zuen saileko ikasleei zuzendutako berritasunik?

Hurrengo ikasturtean atzerriko ikastetxe batekin astebeteko trukaketa egitekotan gara. Holandako ikastetxe batekin hartu-emanetan gaude. Modu horretan, beste herrialde bateko egiteko modua hurbiletik eza-gutu ahal izango dute.

ARGITARATZAILEA: **Azaro Fundazioa**
 LEGE GORDAILUA: **BI-804-05**
 EGOITZA: **Xemein Etorbidea, 19,
 48270 MARKINA-XEMEIN**
 TELEFONOA: **94 616 91 72**
 Faxe: **94 616 92 17**
 E-POSTA: **azarofundazioa@leartik.com**
 WEBGUNA: **www.azarofundazioa.com**



hazi

• 2007ko IRAILA • 8. ZK. • 3. urtea



AZARO FUNDAZIOA • ESPERANZA 2013

Proiektu estrategiko hau orain dela urtebete definitu eta aurkeztua izan zen eskualde mailako proiektua da

Azaro Fundazioak eta Lea Artibai ikastetxeak aktiboki parte hartzen duten proiektu honek, 2013 urtera begirako helburu konkretu batzuk ditu. Hona hemen helburuak, taula batean:


aldeko goiko irudian ikus ditzakezue. Bertan aipatutako helburu horiek zazpi urtean lortu nahi dira, urtez urte, proportzionalki, helburu zehatz batzuk lortu nahi direlarik. Aurtengo urteari begira, gaur arte

- Proiektuaren difusioa egin da EAE, Espainia eta Europako hainbat entitate eta eragile desberdinen artean.
- Alor desberdinetarako lan taldeak eratu dira.
- Lea Artibai Ikastetxeko ikerlariak enpresa sustapenera bideratu dira. Beraien merkatu azterketa eta ikerketek, negozio aukera duten aztertzen da.
- Ekintzaileentzako azpiegiturak lortu dira. Azaro Fundazioak beste bi enpresa haztegi berri ditu ekintzaileek beraien enpresa proiektua garatu eta martxan jartzeko. Bata, Markina Elkartegian dago, zerbitzu enpresa sortu gabe duten sustatzaileentzat eta bestea, Markina-Xemeingo sarreraren dagoen Azpiri Eraikina da, oinarri teknologikodun enpresek bertan lan egiteko, alokairu merkeago batean.

HELBURUA	2007 URTEARABERRIA	2007 URTEAK
a) ENPRESA BERRIAK	90	17
• Zerbitzuetakoak	75	9
• Industrialak	15	3
Sektoreko enpresen tipologia		
• Kooperatibak	825	3
• Batean berrituzkoak	820	2
• Batean promozionatuak	100	3
• Berrituzkoak	840	7
• Langile kopurua	500	71
• Erakunde lanpostuak	250	35
b) DIBERTSIFIKAZIO PROIEKTUAK	77	3

Bestalde, proiektu estrategiko honen misioa eta lan ildoak eskuma

egindako lana aztertuz, honakoak lirateke ondorioak:



• Enpresa sorreran lan aktiboa egin da. Alor honetan, lan integrala egiten da. Hau da, sustapen kulturalaren hedapenetik hasten da, ekintzaileei formazioa ematen zaie, enpresaren bideragarritasun plana landu, sorrera prozesuan lagundu eta gero, sortu eta gero finkatze faseko aholkularitza ere ematen da.

• Eskualdeko eragile desberdinen proiektuarekiko sentsibilizazioa landu da.

• Enpresa berritzaile eta oinarri teknologikodunak sortzen laguntzeko metodologia berria garatu da.

Goian azaldutako helburuak lortzeko lanetan gabiltza Azaro Fundazioa eta Lea Artibai Ikastetxea. Hala ere, eskualdeari begirako proiektu honetan, behar beharrezkoa da eskualdeko beste eragileen parte hartze aktiboa, guztion onurarako proiektua baita. Zenbat eta enpresa gehiago sortu eskualdean, are eta lanpostu gehiago izango dira. Eta zenbat eta lanpostu gehiago, aukera gehiago bizimodua gure eskualdean egiteko. Honela ba, zera adierazi nahi dugu: *Askoren lana, guztion etorkizuna.*

Azaro Fundazioak enpresa sortzeko prozesuan laguntza eta sortu ondoren, lehiakortasuna hobetzeko zerbitzuak eskaintzen dizkie eskualdeko ekintzaile eta enpresei.

berriak •••

LEA-ARTIBAI ESUALDEKO IKASTETXE DESBERDINEN LAN MAHAIA LANEAN HASI DA: 2007-08 ikasturterako ekintza plana martxan da jada. Ikastetxe partaiteak: Bera-Kruz Ikastola, Zubi Zahar Ikastola, Txomin Agirre Ikastola, Ondarroa-Lekeitio Iturriotz Institutua eta Resurrección M^a Azkue Ikastola. Helburua: ikasleekin sustapen kulturalaren baloreak lantzea eta eskualdea ezagutaraztea.

MERKATARITZA SEKTOREAREN INGURUKO DIAGNOSIA BILTZEN DUEN LIBURUA LASTER KALERATUKO DA. Eskualdeko merkataritza eta ostalaritza inguruko analisiaren ondorioak daude bertan irakurgai. Egilea: Lea Artibai Garapen Agentzia.

bisitak •••

VALENTZIAN ZENTRO DESBERDINAK BISITATU DIRA: Aimplas Zentru Teknologikoa, Instituto Biomecánico de Valencia, Lafitt, Compounding-ean (neurritza egindako materialen ekoizpena) diharduen enpresa bat. Bisitaren helburua: identifikatutako negozio aukeren kontrastea egitea.

jardunaldiak / ekitaldiak •••

EKINTZAILETASUNAREN INGURUKO JARDUNALDIA IZANGO DA DATORREN URRIAN ZEHAR. Gaia: Ekintzailetasuna lantzeko beste esperientzia batzuk. Antolatzailea: Azaro Fundazioa

ekintzaileentzako programak •••

SORTU ZURE ENPRESA PAUSOZ PAUSO: Enpresa proiektu guztiei zuzenduriko eskaintza:

- Bideragarritasun plana eta garapen teknologikorako aholkularitza.
- Diru laguntzei buruzko informazioa.
- Esperanza, Legamin, Markina Elkartegia eta Azpiri enpresa haztegiaren proiektua garatzeko aukera.

KOOPERATIBA EGINEZ: Kooperatiba eredu juridikoa izango duten enpresa proiektuei zuzenduriko eskaintza. Kooperatiben Mahaiaren eskutik, ondorengo laguntza gehigarria izango dute:

- Inbertsioetarako laguntzak.
- Ideiaren kontrastea.
- Ekintzaileentzako laguntza ekonomikoa.

FINKATZE FASEKO AHOALKULARITZA: enpresa sortu berrientzako aholkularitza.

MIKROENPRESEN LEHIKORTASUNA HOBETZEKO ZERBITZUAK:

- Hausnarketa estrategikoak: abantaila konpetitiboak identifikatzeko edo hauetan sakontzeko.
- PREMIE programaren ezarpena.
- Hobera metodologiaren erabilera.
- Jardunaldi teknikoak.
- Diru laguntzei buruzko informazioa.
- Gestio planen garapena.
- Pertsonak: barne asegarratasun azterketak, barne komunikazioa.
- Antolakuntza: ekoizpenaren antolakuntza.
- Marketin planak, bideragarritasun azterketak...
- Kalitatea: ISO, EFQM, 5S...

DIBERTSIFIKAZIO PROZESUETARAKO AHOALKULARITZA:

- Azterketa sektorialak.
- Merkatu ikerketak.
- Berrikuntza: produktu/zerbitzu berrien definizio eta jaurtiketarako prozesuaren dinamizazioa.

diru laguntzak •••

PROGRAMA NETS
 Xedea: Oinarri zientifiko eta teknologikoa duten proiektuen gauzapenerako laguntza programa.
 Erakundea: Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Saila.
 Epea: 2007ko urriak 1.

PREMIE
 Xedea: Enpresak bere kudeaketako arlo guztiak kontuan izanik lehiakorra izateko etengabeko hobekuntza bultzatzeko programa.
 Erakundea: Bizkaiko Foru Aldundia.
 Epea: 2007ko urriak 1.

MERKATARITZA-EKIPAMENDUAK MODERNIZATZEKO LAGUNTZA (MEC)
 Xedea: Merkataritzako ekipamenduak modernizatzea.
 Erakundea: Eusko Jaurlaritzaren Industria, Merkataritza eta Turismo saila.
 Epea: 2007ko urriaren 3a.

AFI PROGRAMA
 Xedea: Industria, Merkataritza eta Turismo sektoreetan aktibo finkoetan inbertsioak egiteko laguntza finantzarioak
 Erakundea: SPRI.
 Epea: 2007ko urriak 15.

ADEFIN PROGRAMA:
 Xedea: Industriako enpresa ertain eta txikien finantza egitura moldatzeko laguntzak.
 Erakundea: Eusko Jaurlaritzaren Industria, Merkataritza eta Turismo saila.
 Epea: 2007ko urriaren 20an.

LAN SARBIDEAK

Xedea: 2006/07 urtean sortutako banakako enpresaburuentzako eta ETE-entzako diru laguntzak 2007. urtean obren, inbertsioen eta lokalen alokairuen gastuak diruz laguntzeko.
 Erakundea: Bizkaiko Foru Aldundia, Lan eta Trebakuntza Saila.
 Epea: 2007ko urriak 30.

HOBEBI DIGITALA:

Xedea: ETEen barne prozesuen eta ETEek bezero, hornitzaile eta administrazioekin dituzten harremanen digitalizazioa IKTak erabiliz sustatzeko laguntzak.
 Erakundea: SPRI.
 Epea: 2007ko azaroaren 30a.

ONDORENGOTZA PROGRAMA:

Xedea: EAEko Enpresa txiki eta ertainei hausnarketa prozesua bultzatzea; enpresaren kudeaketa edo jabetzaren ondorengotza planifikatzea eta modu ordenatuan egitea, enpresaren jarraipena bermatu ahal izateko.
 Erakundea: SPRI, Industriaren Eraldaketarako eta Sustapenerako Baltzua, S.A.
 Epea: 2007ko abenduaren 31a.

ELKARTEGIAK PROGRAMA

Xedea: Kalitate eta ingurugiro sistemak ezartzearen, bonifikazio bereziak.
 Erakundea: Bizkaiko Foru Aldundia.
 Epea: 2007ko abenduak 31.

URTE OSOAN ZABALIK

KZ LANKIDETZA: www.spri.es/kz lankidetzaren INTERNETERAKO SARBIDEA ETA MUGIKORTASUNA WIFI-REKIN: www.spri.es/wifi

Zure enpresari buruzko berriren bat argitaratu nahi baduzu hemen... Deitu: 94 616 91 72



hazi
 Hurrengoa,
 2007ko
 abenduan!!!